

# Buruntza kastroaren azken emaitzak

CARLOS OLAETXEA\*

Andoain kokatua dagoen mendi honetan Burdin Aroko aztarnategi bat lurperatuta dago. 1988an aurkitua izan zen eta kata bat eginez jaso ziren lehenengo zeramika pusketak.

Aztarnategia harresiz inguratutako Hektarea t'erdiko esparru bat da. Harresi honek Buruntzako bi tontorretako bat inguratzen du (gurutzekoa) amildegiraino zirkulo erdiko forma duen oinplanoa osatuz. Harresiaren ondakinek berau bertako karaitzak pilatuz egina zela erakusten digute. Egun arte iraun duen zatiakak metro erdiko altuera eskasa hartzen du orain arte industutako zonaldetan.

Harresi honen barnekaldean lur zelaiketa bat eratzen da eta han bertan burutu dira hiru indusketa ekitaldi (1992,1993 eta 1994an). Ekitaldi hauek emandako ondorioak aztarnategiaren ezagupena hobetu dute:

Badirudi hemen bizi izan zen taldeak ez zuela luzaroan iraun bertan, eratutako jalkina oso lodia ez denez. bigarren Burdin Aroko aztarnategi bat dela esan dezakegu burdinezko bi tresna gutxienez aurkituak izan direlako. Brontzea ere ezagutzen zuten noski, eta bertan galdatzen zutenaren zantzuak ikus daitezke (galdaketa-hondakinak aurkitu baitira).

Zeramika mendipeko buztinaren egina dago eskuz eta forma berdintsuak errepikatzen ditu: hondo lauak, ertz irekiak eta kordoi apainduriko dekorazioak. Badirudi zenbait ontzi sutan jartzeko erabiliak izan zitezkeela. Neurri ezberdinetakoak dira, eta zenbait, oso handiak, aleak gordetzek balio izango zuten.

Fauna aldetik aztarnak oso eskasak dira, ze lurraren azidotasunak hezur guztiak jan egiten ditu. Bi agin zati aurkitu dira solik, horietako bat behi edo zezenarena. Landaredia aztertzeko lorautsen analisiak egiten ari gara, eta ikatzak klasifikatzeko asmoz ere bagabiltza.

Etheen egiturak berriz, ez dira azaldu oraindik eta ez dakigu Intxurreko modura, harkaitza puskatuaz egingo ote zituzten edo egurrezko egiturak soilik. Aurrerantzean lortu beharreko informazioa da hau.

\* Aranzadi Zientzi Elkarte. Historiaurreko saila.